

ttüpi-ttapa

1994.eko otsailak 3 • 127. zenbakia

Elkarrizketa

Karrape Irratikoak

Erreportaia

Kupelako sagardoa libre



LOTSAK FUERA!

KASU hurrengo ttipi-ttapari

Negu honetan
sutondoan
euskara jorratzeko
aukera


ETXETIK PLAZARA

Kontuak, ariketa arinak
... eta gainera aldiro opariak

*Bortziriak, Leitzaldea eta
Malerrekako Euskaltegiak*



Centro Comercial



LUIS
MARIANO
Irun

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...

*Denetarik
gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian.
Parkina eta guzi.*

DATUAK

❖ *Urriaren 28an, San Simon egunean, hasi diren ofizialki Karrape Irratiaren Eratsaiok.*

❖ *Leitzako irratia municipala da eta inguruko herrietan ere entzuten da.*

❖ *Astelehenetik ostiralera 2 orduz emititzen dute eguerditan. Gainerako orduetan Euskadi Irratiaren seinalea zabaltzen dute.*

❖ *Anabelentzat hau da irratia munduarekin duen lehen kontaktoa. Abeli aritua da lehenagotik Aralar Irratian.*

❖ *Urte honetan, martxo aldera edo, lau orduz emititzen hastekoak dira.*

Anabel ALDUNTZIN eta Abeli ZABALETA: «Urtebetetzeak zoriontzeko eta, jende askok deitzen du 'Karrape'ra»

NOLA DAGO AN- TOLATUA KARRAPE IRRATIA?

Karrape Leitzako irratia municipala da eta udalaren laguntza jasotzeaz gain, Nafarroako Gobernuarena ere hartzen du. Momentuz ez dugu publizitaterik sartzen.


INGURUKO HE- RRIETAN ERE ENTZU- TEN DA?

Bai. Leiza eta Areson ongi aditzen da. Goizuetako baserri batzutan ere hartzen omen da seinalea eta baita Ezkurra eta Eratsun aldean ere.

Berriemaileak ere baditugu inguruko herrietan: Areso, Goizueta, Ezkurra, Eratsun, Zubieta, Ituren, Doneztebe eta Lekunberrin.

BI ORDU HOIETAN DENETARIK IZATEN OMEN DUZUE. ZER DA JENDEAREN GUS- TOKOENA?

Zaila da hori jakitea. Jendeari bertakoekin elkarrizketak aditzea gustatzen zaio. Dena dela, lehiaketa eta urtebetetzean zoriontzeko jende askok deitzen du, eta aldi honetan, merkatu txikiko abisuak izugarritzko furian daude;



salerosketak direla, giltzak galdu direla...

EMISIO ORDUAK LUZATZEA PENTSATUA DAGO, EZTA?

Aurten lau ordu-tara luzatzea hasieratik dago pentsatua, baina momentuz ez dago esaterik hori noiz izanen den. Beharbada martxo aldera edo,

hasiko gara ordu gehiago emititzen.

ZUETAZ APARTE BESTE JENDEK EDO TALDEK PARTE HAR DEZAKE IRRATIAN?

Eskolakoekin eta profesionalekoekin egon ginen, ostirale-tan ordu bat terdiatetik ordubietara beraiek programa bat egiteko.

IRRATI MUNI- PALA IZATEAK PRO- BLEMARIK SORTU DI- ZUE?

(Ixiltasuna). Ez. Objektibitate kontutan hartu eta jende guziaren gustoa egin

behar duzula... Ez ditugu geure iritzia emanen.

BADUZUE HARRE- MANIK ANTZEKO IRRATIEKIN?

Hasi berriak gara eta orainoz ez dago gauza haundirik. Aralar Irratiarekin bai, baina bestela ez. Lau ordutara zabaltzean espero dugu zerbait egitea. Izan ere, praktikak egin ginetuenean ibili ginen Euskalerrira Irratian, Aralar Irratian, Xorroxinen eta Irulegi Irratian.

► *«Leiza eta Areson ongi aditzen da Karrape Irratia. Goizuetako baserri batzutan ere hartzen omen da seinalea eta baita Ezkurra eta Eratsun aldean ere.»*

BAKAILUA (TORTIL-
LLAN NAHIZ PREXI-
TUA), TXULETA EDO
BERRIAGO ARRAI-
NA, GAZTA, MEN-
BRILLOA ETA GIL-
TZAURRA BAINO
LAGUN HOBERIK EZ
DAGO SAGARDOA-
RENTZAT

Ohiturak agintzen duen modura, urtarrilaren erdian zabaldu da sagardotegiaren denboraldi ofiziala. Gehienak Gipuzkoa aldean ireki badira ere, gure inguruan badago bat baino gehiago, nahiz eta gutti izan, edari goxoa bertan eta bertako sagarrekin egin eta saltzen dutenak.

TESTUA
AITOR AROZENA
ARGAZKIAK
KARMELE TOLOSA



Jesus Garcia
(Lekarozko Larraldean
baserriko sagardogilea)



KUPELEKO SAGARDOA LIBRE

Sagardotegiarena, moda berria edo Gipuzkoatik ekarritakoa dela erraten ahal du norbaitek. Baina 1920. urte aldera, Julio Caro Barojak azaldu duenez, bakarrik Beran hamar sagardotegi omen zeuden eta

guztiak mantentzeko nahikoa sagarra bertan. Hogei urte beranduago berri, ez omen zen ikusten ia sagardi gazte bat bakarrik ere. Duela 80 urte, lehen munduko gerra baino lehen, kupelak egiten zituzten bi tailer omen zeuden Lesakan, Josetxo Etxegaraik dioenez. “*Ultzamako haritzarekin egiten*

zituzten, 25.000 litro arteko kupelak eta Frantziara esportatu. Behobiaraino idi gurditan eramaten zituzten. Baina gerrak esportazioaren negozioa hondatu zuen”.

Antzinetik bazen noski sagardozalerik Euskalerrian: “*Viva sagardo, viva sagardo / cupelan preso zaude-na!...*” zioen XVIII. mende-

«Hemengo sagarrondoak kalitate onekoak dira estudioen arabera»

○ *Zein sagar klase erabiltzen duzue sagardoa egiteko?*

■ Denetikan nahasi behar da; sagar mikatza, gazi eta goxo pixko bat (inoiz ez % 20a baino gehiago) Gure aldetik, Baztango sagarrondoak erabiltzen saiatzen gara. Anixe, burdintze, mokatia, mokotoluze, mizpiresagar, udaresagar, ur-

tesagar, garzabal, apesagar, amesagar, errekasagar, ez-tigorri, eztixuri eta eztibel-tza izenekoak ezagutzen ditugu eta izen ezezaguneko bertze batzuk ere lan egin dugu. Hemengo sagarrondoak kalitate onekoak eta muztio aunitzekoak dira.

○ *Egia da hortaz, zenbat eta sagar klase gehiago erabili sagardo hobe a-*

ratzen dela?

■ Bai. Sagar klase baka-rrekin egiten ahal da sagardoa baina zenbait ga-bezia izan ditzake. Horre-gatik hobe da portzentai egokietan nahastea.

○ *Zenbat litro sagardo egiten duzue?*

■ Aurten 30.000 litro egin ditugu, baina sagar urtea izan ez denez, Gali-ziatik ere ekarri dugu sa-garra. Sagarrak guttienez % 70eko aprobetxamendua behar du, hau da, sagar kilo batetik 70 dezilitro sagardo atera behar duzu.

o koplak herrikoi batek.

IRU SAGARDOTEGI SKUALDEAN

Garai honetan, presoa libre uzteko tenorea ailegatu da. Lesakako Koxkonta jabetxean urtarrilaren 20an eta Lekarozko sagardotegian urtarrilaren 28an edo otsailaren 3an (permisoak noiz iritsi zain zeuden) zabaldu dituzte kupelak. Zugarramurdiko 'Kupela'k urteuzian eskeintzen du sagardoa txotxetik metalezko kupelari (herdoiltzen ez direnak) esker.

Oraindik zenbait baserriaren etxerako edo auzorako sagardoa egiten bada ere, gero sagardotegian komertzializatzeko Lekarozko Larraldean bakarrik egiten dute. Sagardoa egiteko prozesua urriaren erdi aldera hasten da normalki, sagarra motua dagoenean. Jesus Garciak erraten digunez, "orduan, sagarra garbitu eta pikatu ondotik gelditzen den pasta barrikan beratzen dute 24 orduz, usain berexia har dezan". Gero prentsatu eta barrika irekian fermentatzen utziko litzate-

ke, haizerik hartzen utzi gabe (kupelak goitiraino beteak egon behar du beti). Larraldean, lehen fermentazioaren ondotik, zikinak kendu eta berriz kupelean sartu eta ongi ixten dute. Normalean, barriketan Aste Santura arte egoten da sagardoa eta eguraldia epeltzen hasten denean botiletan sartzen da. Koxkonta Sagardotegian berriz, barrika barnetik doaien ur hotzeko mekanismo bati esker sagardoa frexko mantentzen dute maiatza edo ekaina bitarte.

AURTENGOA EZ DA SAGAR URTEA

Bertako sagardotegietako nagusiek erran digutenez, aurtengoa ez da sagar urtea. Larraldeakoen ustez, "iaz sagardo guzia bertako sagarrekin egiten ahal genuen, baina aurten ezinezkoa izan da". Orain, gehien bat Galiziatik eta Asturiasetik ekartzen da sagarra, Normandia edo Bretañatik erostea —libera eta pezetaren arteko aldea medio— sobera garestitu baita. Halere, ez da mama goxorik faltako kupelatan ■

«Kupel bakoitzak bere gustoa ematen dio sagardoari»



Josetxo Etxegarai

(Lesakako 'Koxkonta' jabetxe-sagardotegikoa)

○ Sagardoa nondik eta nola ekartzen duzue?

■ Tolarerik ez dugunez, Urnietako sagardotegi batean prentsatu eta egun berean zisternan ekartzen dugu. Aurten guztia Galiziako sagarrekin egina da.

○ Sagardoa zuek bertan egitea pentsatu duzue?

■ Geronek sagardoa egitea oraindik ez da errentablea, inbertsio haundiak behar dira. Momentuan ez dago horrenbertzeko salidarik, baina

hemendik 4-5 urtera, beharbada...

○ Hemengo jendeak badu sagardotegietara joateko ohiturarik?

■ Gazte jendeak bai, nabaritzen da Astigarraga aldeko sagardotegietako ohiturak ezagutzen dituztela. Zaharragoak berriz, kuriositatez etortzen dira.

○ Zein klaseko egurra behar du kupel on batek?


■ Haritza behar da. Halere, nahiz eta guztiak haritzez eginak izan, sagardo berberari gusto ezberdina ematen dio kupel bakoitzak.

○ Zer deritzozu aluminiozko kupelak jartzeari?

■ Aluminiozkoekin sanitate eta temperatura hobeki kontrolatzen ahal da eta gustoa ez da aldatzen. Sagardoa ezin da igo 10 gradutik eta haizegoak kalte handia egiten dio. Baina egurrezkoak, merkeagoak izateaz gain, estetikoki politagoak dira. Gainera guk, kupelaren barnetik ur hotzeko zirkuitu berexi bat dugu, tenperatura 10° azpitik mantentzeko.

GARAI BATEAN, LESAKAN EGINDAKO KUPELAK FRANTZIARA EXPORTATZEN OMEN ZIREN.

ARG. M. ETXEGARAI



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.700 ALE

ARGITARATZAILA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

Zuzendaria: Joxemanuel Iri-
goien. **Publizitatea:** Miren
Karmele Tolosa. **Erredakzioa:**
Aitor Arozena, Joxemanuel Iri-
goien. **Erredakzio taldea:** Pe-
lo Apezetxea, Juainas Paul,
Kristina Boan, Bittori Telletxea.
Berriemaileak: Joseba Azpi-
roz, Esteban Arozena, Juana
Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria,
Joan Isasi, Txema Aldabe, Pello
Etxegia, Txema Urroz, Patxi
Otxandorena, Daniel Martirena,
Kabel Maia, Josune Etxebeste,
Pablo Mendiburu, Joseba Iga-
labide, Alizia Olaizola, Margari
Etxenike, Koro Irazoki, Mixel
Gerendiain, Jacqueline, Marta
Kurria, Oskar Txoperena, Al-
berto Sansiñena, Pello Apeze-
txea, Aitor Arozena, Joxema-
nuel Irigoien. **Kolaboratzaileak:**
EHNE Nafarroa, Patxi
Gasa, Josetxo Susperregi.

Irakunde Laguntzaileak:
Bera, Leitza, Goizueta, Areso,
Baztan, Urdazubi, Zugarramur-
ri eta Sarako udalak, Bor-
ziriarietako Euskara Mankomuni-
tatea, Malerrekako Zerbitzu
Mankomunitatea...

primategia: Gertu.
ttipi-ttapa ez du bere gain
hartzen derrigorrez, aldizkarian
dierazitako erranen eta eritzien
trantzukizunik



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzaren
Kultura Saileko laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Gaur egungo gazteak 'pasotak' dira?

**Gaur lehen bezala,
badire deustan
saiatzen ez direnak**

Ana Mari ETXEBERRI
Sarako Gaztekoa

Gaurkogazterian lehengoan bezala badira deustan saiatzen ez diren batzuk. Elkarte mailan, ekitaldiak antolatzeke beti jende berdina biltzen da. Eta bertzeak?

Herri baten nortasuna bertan bizi diren biztanleek moldatzen dute. Gazteria herritik ateratzea herriaren hiltzea da. Orduan, nere gogoan herrian bizi eta lan egitea litzateke.

Lehen Saran ez zegoen elkarterik, jendeak baserrian lan eginez ez baitzuen astirik. Orain langileek eta ikasleek beraien lan orduak bukatuta denbora librean baliatzen ahal dute kirola eginez, zinemara joanez edo... ostaturat joanez. Ostaturat ez da bakarrik edateko lekua, elkartu eta hitzegiteko lekua ere bada. Dena den bakoitzak mugitu behar du, alternatibak badire.

Egia da lan egoera zailarengatik gazteak gurasoen etxean gelditzen direla. Segur naiz lan kontratu finkoak izanez gero gauza aldatuko zela.

**Badago edozer
gaztearako prest
dagoen gazteria ere**

Agustin ELIZEGI
Goizueta Gaste Asanblada

Nire ustez gaur egun ere badago saiatzen den gazteria eta edozer gaztearako prest dagoena. Bakoitzak noski baditu bere helburuak, nik hala uste dut behintzat. Batzuk esaten dute lehengo gazteak, garai batekoak alegia, gehiago mugitzen zirela, baina nere ustez oraingoak gehiago mugitzen gara. Ez da zergatik tabernatik etxera eta etxetik tabernara ibili behar. Dinamika horrek badu alternatibarik eta gauza asko egin daitezke egunean zehar.

Batzuk diote gaurko gazteak 'pasotak' direla gurasoen etxean bizitzen segitzen dutelako urte askotan, baina hori gaur eguneko etxebizitzaren prezio altua eta langabezia eta lan egoera zailarengatik da.

**Normalki gehien
mugitzen direnei
deitzen zaie pasota**

Rocky PUMAR
Lesakako langilea

Gazteek ez dute gauza aunitan saiatzeko aukerarik; goiz goizetik eskolara joan, bazkaldu, TB pixkot ikusi eta gero gainera bi ordu estudiatzea nahi dugu. Kurioso da, baina guk pasotak deitzen ditugunak dira gehien mugitzen direnak, konformatzen ez direnak, musika taldeak sortzen dituztenak edo intsumisioa defendatzeagatik kartzelera joateko prest daudenak. 'Onak' berriz, etxean gelditzen direnak eta gurasoek errandakoa egiten dutenak dira.

Gazteari, beti bezala, ahalik eta hobekien pasatzea gustatzen zaio. Lehengoak bertze modu batera mugitzen ginen; dena debekatua zegoen, diktadura bat zegoen eta horren kontra borrokatzen genuen. Ostatueta garai batean gehiago ibiltzen ginen eta ez da hain txarra. Harremana dago kuadrilla edo jendearen artean, so-lasten da. Ostaturat eta bertze ekintzen arteko oreka bilatu behar da.





**muñeca
de trapo**

**GIZONEZKOEN
MODA**

**EMAKUMEZKOEN
MODA**

BLAK, IRUNgo LUIS MARIANON

BOTA BERTSOA



**'Pasotak' ote
dira gaurko
gazteak?**

Bittor ELIZAGOIEN
Neurria: Hamarreko haundia

Bertso batean erantzun nahi dut
zure galdera zabala
nolako den ongien erantzutean
erantzun ginen dut eginala
adago gazte pasota eta
adago gazte apala
azteriarren portaera hau
ez al da nabiko normala
gaur ere bada denetarik
arrai batean bezala.

Batzuek dabiltz diskoteketan
bertze batzuek elizan
batzuek dabiltz lanean eta
bertzeak lasai bizitzan
batzuek estu bizitzen dira
estudioen baldintzan
baina pertsonak bizi behar du
beti berak nabi dun gisan
bakoitzak bere aukera dauka
pasota edo ez izan.

**Jarrai, ze
intsumisioari
buruz hitzegiten
didazue?**

JARRAIk 1993ko abenduaren 22an emandako prentsaurrekoan beste adierazpen batzuren artean esandakoari buruz: -
...gatazka beharrezko parametrotan berriguratu zituen, espainiar ejerzitoarekiko enfrontamenduak direla... zera esatea gustatuko litzaidake:

Ni, abertzalea eta demokratikoa den EGIko gazte antolamenduaren partaidea naizenez, ezin dut JARRAIk intsumisioari buruz duen jokaera manipulatuzailea eta hipokrita salatu gabe utzi.

Gazte talde honek, indarkeria babesteagatik eta indarkeriara bultzatzeagatik ezaguna dena, bere ekintzez benetako antimilitarismoaren aurkako gatazka zikintzen du, gatazka antimilitarista hau betidanik bere ekintzak begirunez, tolerantziaz eta indarkeriaren ezaren filosofia mantendu baitu.

JARRAI, orain dela gutxi arte hipotetikoa den euskal iraultza estatu sozialistako objektoreak espezteratuak izan behar zirela

esaten zuena (slogan gogor bat zela medio, kanpaina bat atera zuten), txingarra abiadurarekin nahasi nahi du, intsumisioari buruzko mugimendua beraien etekinerako hausketa eta desestabilizazioara eramanez.

Nere ustez benetan antimilitaristak badira, ETA salatzeke behar den adorea eta ausardia erakutsi behar dute, bere autoizendapenez euskal ejerzito herrikoa denez eta eraberean Dolores Gonzalez 'Yoyes' en pertsonan egindako erahilketan, bera izan baitzen bere taldeko lehengo objektorea eta intsumisa.

Azkenik, orokorki Euskal Herriko gaztediari eta bereziki Nafarroakoari dei bat luzatu nahi diet, manipulatuzaile talde hori dela eta engainu horretan sartu ez daitezten (benetan antimilitaristak badira) eta objektorea eta intsumisioaren alde lana egin dezaten, benetazko Euskal talde antimilitaristak direla medio (MOC adibidez).

JULIAN YANCI MITXELENA
EGIko PARTAIDEA
(EAJ-PNVREN GAZTERIA)



Berako Udalari

Ez dakit Eztegarra pilotalekuan kantxa alokatzeko zer egin behar den, edota argiak bixteko zenbat ordaindu behar den; eta dirudienez euskaldunok ez dugu hori jakiteko modurik, pilotalekuan agertzen den paper bakarra gaztelaraz idatzia baitago. "Tarifas y funcionamiento" dio, urrutitik ikusten diren letra haunditan, azpian dena argi esplikatzeko duela, erdaraz noski. Baina lasai "ez du inporta!" dataren ondoko ziguilak gure udalaren euskalzaletasuna ziurtatzen du. Bertan eta euskaraz bakarrik "BERAKO UDALA" jartzen du. Benetan mingarria edozein euskaldunendako giro euskalduna bizitu den toki batean erdara erabiltzea, ez euskararekin batera denon eskubideak defendatzeagatik, euskararen ordezkari baizik, inongo kontsideraziorik gabe.

OSKAR GOÑI PETRIRENA
ENA.- 72.675.378



LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZU BERRIAK

- ⇒ Fax Publikoa
- ⇒ Enkuadernazioak
- ⇒ Inprenta lanak • fotokopiak
- ⇒ EGUNKARI hauek SALGAI
- Diario Vasco, Diario de Navarra, Navarra Hoy, El Mundo, As, Deia, Diario 16, Egin, Egunkaria, Marca, El Pais
- Legarrea 9, © 637030 - LESAKA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ERRO
BIDAIAK

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

ADRIANA KALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUIN

**EKAITZA
OSTATUA**

Goizeko 10etan irekia
asteleheneetik ortziratera

Altzate - BERA



ARGIA

«Nire azken liburuan gizona askoz ere gehiago kritikatzeko da emakumea baino».

Patziku PERURENA

«Argia» 94+23

«Garbi izan behar dugu kultura lehen mailako elementua dela turismoaren barruan, eta ez zaiela bakarrik beste arlo ekonomikoari garrantzia eman behar».

Martari ALTZUARTE

BKZkoa
Nafarkaria
«Egunkaria» 94+21

«Titin III izan da finaleko onena. Joan den urtean ikusi nuenean, beretaz asko hitzegiten bazen ere, ez zitzaidan iruditu borrobertze jokatu zuenik, baina gebien bobetu dena bera izan da eta jadanik pilotari handia da».

Julian RETEGI

Eratsungo pilotaria

«Egin» 94+23

◆ Aurtiztarra edo iturendarra?

❖ Aurtiztarra, garai batean aiuntamiento propioa omen zuen Aurtizek.

◆ Lehengo inñauteak edo oraingoak?

❖ Lehengoak, orain aunitz galdu da.

◆ Bertotan ari edo aditu?

❖ Norbaitek zirikatzen banau bertsoa bota.

◆ Labrantza edo fabrika?

❖ Orain ez bata eta ez bertzea; lehen labrantza nahiago nuen.

◆ Denbora libre nola pasatzen duzu?

❖ Egur lanean, kutxarak, kiderrak... egiten.

◆ Oraingo bizimodua edo lehengo hobea?

❖ Oraingoa hobea, gu istiluak ikusiak gara.

◆ Pilota partiduak edo aizkora apustuak?

❖ Bietara afizio handia, lehen aizkora aritua naiz.

◆ Dirua irabazteko modurik errexena?

❖ Apeza izan banintz, eltzetxoa pasatuz.

◆ Haragia edo arraina?

❖ Haragia neregatiki sobrate duk, bakailua gustatzen zait aunitz.

◆ Bertsolaririk gustokoenak?

❖ Lazkao Txiki, Joxe Lizaso eta Joxe Agirre.

◆ Aizkolaririk onena?

❖ Latasa eta Mindegia.

◆ Laketuko zenuke ziudadean?

❖ Ezta pentsatu ere, aukera izan nuen baina ez nintzen joan.



Miguel ERASUN

72 urteko aurtiztarra

MOLINERO

PINTURAK



Etxe barneko hezetetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoaren araberrako prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA



© 631076 • BERA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



Ortzegun gizen, Kaldereroak,
Inudeak eta artzaiak...

Dena prest iñauteriak ospatzeko

KRISTINA BOAN

Iñauteak urtero bezalaxe ortzegun gizen egunarekin hasiko dira. Otsailaren 10eko goizean, haurrak etxetik ibiliko dira eskean 'zingar arraultze' kamtatzuz. Larunbatean Kaldereroak hartuko ditte txanda. Urrutiko Hungariatik etortzen diren zingaro hauek zarrata eta kantuz beteko dute larunbateko arrats parteak. Eurekin kamtatu nahi duenak, otsailaren 9, 10 eta 11n duentsaiatzeko aukera 7,30etatik antzineran Ilamotenean. Presta itzazue, hortaz, zuen zarritagi eta soinu egiteko gogoak. Igandean goizetik aterako da Inude eta Artzaian kompartsa karririk alaitzera. Astelehenetan, haurrak etxean gelditu eta haundixea gozak dira kanporat ateratzen direnak. Ilunabar partean moztarazak erakutsi eta bildotsa eramateko aukera ere izanen da.



Golkio

Joxe M^a Irazoki Euskadiko Txapeladuna

Urtarrilaren 23an, Donostian jokatu zen Euskadiko Txapelketan Jose M^a Irazokik 6^o88 zentesimako denbora egin zuen 60 metrotan.

Hurrengo probak Zaragoza eta Sevillan izanen ditu Espainiako Txapelketa korritzeko. Zaragozako proba 'promesas' mailako da eta Sevillakoa orokorra.

ttipi-flash

Lehiaketak

XXII. Haur Ipuin Lehiaketako sari-tuak: 9 urte artekoetan lehen saria Berako Egoitz Zelaietarentzat; aipamen bereziak Arantzako Sonia Lizardi eta Gurutze Pikabearentzat eta Berako Inaxio Agara eta Fco. Morenorentzat. 10 eta 11 urtekoetan 1go saria Berako Lourdes Agirreren-tzat eta aipamena M^a Errandonearen-tzat. 12-16 urtekoetan Berako Miren Vicuñak esku-ratu du lehen saria. VIII. Helduen Ipuin Lehiaketara, bertalde, 4 lan aurkeztu ziren eta 1go saria Arantzako Patxi Larretxearen-tzat izan da.

Inude eta artzaiak

Entsaioak Eztegarako frontoian 7 eta 8an arratsaldeko 7,30etan dantzatzen ez dakitenentzat, etaguztientzat otsailaren 11n (ortzirala) kaldereroen entsaioa akautu ondotik.

GOYA


JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

BOAN TAILERRA



KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ZIZKA OSTATUA

MARTXA ETA MOZKOR SALTSA
ALTZATE 28 - BERA



Gainean ditugu berriz ere Iñauteriak

Igandeko zaku-zaharrak eta asteleheneko karrozen desfilea gauzarik aipagarrienak

AITOR AROZENA

Iñauteriak datorren igandean (otsailak 13) hasiko dira, baina dagoeneko larunbatean ikusiko dira lehen mozorroak. Arranon antolatu den mozorro afariak lagunduko du egun horretako giroa pizten. Igande arratsean zaku-zaharrak herrian barna goitibehiti ibiliko dira eta azken pausua plazan emanen dute.

Astelehen eguerdian karrozen desfilea izanen da eta arratsean, Beti Gaztek antolatutako mozorro lehiaketa egingen da. Igandean eta astelehen arratsean musika izanen da plazan 'Gaubela' taldearekin.

Baserri auzoetako gazteek egun batez luzatuko dute besta eta asteartean etxez etxe ibiliko dira Goitarrak, Fraindarrak eta Nabaztarrak, soinua eta giroa baserrietara ere eramanez.



Aitor

Besta egun polita izan zen San Anton auzoan joan den igandean

83 pertsona lagundu zituen iaz Bortzirietako DYAk

Bortzirietako DYAk 1993ko balantzea jakitera eman du. Aurten 10. urtemuga beteko du eta jende beharrean dago erakundea.

DYAk eraman-dako 83 pertsonetatik 48 Bortzirietakoak ziren (4 Arantzakoak, 19 Berakoak, 2 Etxalarkoak eta 23 lesakarrak).

35 pertsona trafiko

istripuengatik eraman zituzten, 29 eritasun larriagatik, 6 laneko istripuagatik, 20 kirolean min hartzeagatik, 3 etxeke istripuagatik eta berzte bat norbaitek jo

ondotik. Honetaz gain, 26 pertsona zaindu zituzten Lesakako delegazioan, zauri eta erredura arinak izan eta gero.

Bertzalde, ekainean 10 urte beteko dira erakundea sortu zenetik. Gaur egun, larrialdi zerbitzuaz gain, gizarte zerbitzua ere eskeintzen du, egunero bortz la-

gun Berako 'Uxane' eskolara eramanez.

Halere, DYAk arduradunak kexu dira, jende gutti baitago Bortzirietako delegazioan eta ezin dute zerbitzu guztiak nahi bezala bete. Erakundeak inguruko alkateekin bilteko asmoa agertu du, arazoari konponbidea eman asmoz.

ttipi-flash

❖ **Musika**
eskolak 1993-94 ikasturterako aurkeztutako aurrekontua ahobatez onartu du udalak. 10.889.654 pezeta behar du musika eskolak kurtso honetan.

❖ **Patinaia**
ikastaroa antolatu du Beti Gaztek. Klaseak larunbat edo igandean emanen dira hurrengo bortz hila-betetan.

❖ **Koikili Fagoaga**
eta bere trineo zakurrek parte hartuko dute 'Pirena' izeneko ibilaldian otsailaren 12tik antzinerara. Pirineo guztiak zeharkatuko dituzte.

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURETXEA

JATETXEA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

SASKI
OSTATUA
LESAKA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

LORA DENDA

TXIRULA
Bittiria LESAKA
627542
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

BEREAU
jatetxea
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA



Frexkuena
zugandik
hurbilago
Bittiria 67 - Tfnoa: 637264



Herri Ostatua martxoan irekiko da

Alix Mitxelenak eta Xabi Urmenetak hartu dute

PELLO ETA ALBERTO

Bikote honen eskeintza eman du ontzat Udalak, ikusitako birem artean. Hileko bertzeak eskeini baino gehiago ordainduko dute, 40.000 pezeta, eta asteko sei egunez irekiko dute, ordutegi zabala erabiliz. Dena den, Herri Ostatua ostatu baino zerbait gehiago izateko ametsak dituzte hartzaileek, berorrek inkeintza kulturalak ere antolatuko dituztela, alegia, bai ostatu barnean, bai inguruak ezagutzeko ibilaldiak.

Basurdearen ugaritzea

Azken urteetan lehen ez bezala ikusten da basurdea, duela urte batzuek bat bakarrik ere ez baitzen sumatzen.



Asteazkenetan gimnasia eta ariketa fisikoak egitera biltzen dira haurrak, Jose Mari eta Asier Arburuaren gidaritzapean.

Ehizturiek bertze eremutara jo behar izaten zuten, orain, ordea, inoiz baino gehiago dela iduri du. Bera eta Sarako mendietan basurdekumek bota iza-

nak badu zerikusirik, noski. Ez da aspalditan ezagutu herriko bi ehizturi taldeek negu honetan dagoeneko etxeratu duten basurde kopurua: 21.

Haurrak ari dira

Ortzegun Gizenerako prestatzen, eskolan egiten den lanari esker. Gazte artean ez daki-gu mugida haundirik badagoen.

Personaiak



Arantxa Perugorria Bidaburua. 22 urte.

■ Inauteetan jende gehiegi moztortzen ez bada ere, azken urteetan zuen taldeak segitu du jaunzten eta karrikara ateratzen. Zergatik?

◆ Koadrila osoak izaten du zerbait egiteko gogo, eta koadrila osoa ateratzen gara. Bestetan ere koadrilan ibiltzen gara.

■ Zergatik ez da moztortzen gazte eta adineko gehiago? Lanagatik?

◆ Ez, nere ustez, gogorik ez delako. Behar bada, lotsak ere badu bere eragina, karrikan moztortua agertzeko. Azken bizpahiru urtez, bilerak egin dira zerbait antolatzeko baina betikoa, lau katu biltzen gara.



Legia 11 - 63 06 64 BERA

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

KOXXKONTA



Sagardotegia zabalik

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat arratsaldetan zabalik

Hamar igantziar Argentinara Arkupeak elkaratearen eskutik

Aurtengo iñauteak otsailaren 4a eta 5ean

OSKAR TXOPERENA

Ez da nolanhikoa Igantzik Argentinara doan jende multzoa. Azkenean 10 lagun animatu dira bidaiari luze hau egitera; gehienentzat lehendabiziko aldia da gainera, horrelakorik egiten dutela. Zenbaitzuk senideren bat ikustera baldin badoaz ere, bertzeak paraje haiek ezagutzeagatik omen doaz. Hementxe duzue zerrenda: Jose Luis Seronekoa, Antonio Txopenekoa, Periko eta Herenia Exkerrenbordakoa, Nazario eta Angelita Bi-bidekoak, Hipolito eta Mari Mar Bentakoak, Patxi Martilebengoa eta Lurdes Zugarramurdi. Ongi pasa.



Ederki pasatu zuten gure jubilatuek beren herriko besta egunean

Iribereko Patxikuren omenez

Gutti falta da Patxiku Iriberekoari egin behar zaion omenaldia antolatzeaz bukatzeko. Bazkarira joateko

txartelak 13ra arte 3.000 pezetan truke erosten ahal dituzue Apetxea, Herriko-Etxea jatetxea eta Bi-

biden. Jende guztia Herriko Etxean sartuko ez denez, Biltokik Kontxitarren eskutan utzi ditu elkarteko lokalak, bertan ere bazkariak emateko.

ttipi-flash



Iñauteak

heldu den aste ondarrean izanen ditugu, 4a eta 5ean hain zuzen. Egitaraua urterokoa da gutti goiti behiti, herri eta baserritan barna eginen den eskea, musika saioak eta otordu ederak direlarik gauzarik aipagarrienak.

Begi oker

daukagu elizako erlojua aspalditxo honetan, alde bakoitzean ordu ezberdina ematen baitu. Halere, igantziarrok badakigu zeineri begiratu.

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

ttipi-ttapa
631188

KOXXILA
OSTATUA

Larunbatetan
mus txapelketak
sari ederrekin

Zarandia 4 - LESAKA



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

Aranza

Ekaitza elkartean II. mus txapelketa hasiko da hilaren 11n

Sunbillako Txapelketan herriko futbito talde bat parte hartzen ari da

MARTZA ITURRIA

Ekaitza elkartean antolatutako bigarren mus txapelketako partidak otsailaren 11an hasiko dira.

Sarrerera iaz bezala bi mila pezetakoa izanen da bikote bakoitzeko. Liga gisan ospatuko da, ortziraletan arrattseko 9etan soziedadean bertan.

Izen emateak Primi ostatuan, Aterpe erretegiian edo Ekaitza elkartean egin daitezke. Sariak ez dira nolana hikoak izanen, izan ere lehen bikoteak 35.000 mila pezetako saria izanen du, bigarrenek 15.000, hirugarrenek 10.000 eta laugarrenek berri,



Gazte kuadrillen bazkari-afariak ere ez dira faltako aurtengo inauterietan
Artxiboa

Inauteriak aste ondar honetan

Antzineko alean aipatzen genuen bezala aste bukaera honetan ospatuko dira inauteriak.

Ortzegun eta ortziraletan puxka biltzen ibiliko dira mozorroak. Larunbat gauean goi mailako bertso saioa izanen da frontoian eta gaupasa Irati taldearekin. Igande eguerdian pilota partiduak eta bertsolariak izanen dira

Burlata jatetxean afari bat. Seguru holako sariak ikusita, jende pila animatuko dela.

Futbito ekipo berria

Futbito taldea osatu dute gazte koadrila

batek. Sunbilla txapelketan parte hartzen dute eta bi partiduetik bat irabazi dute. Ez

dugu argazkirik bainan beharbada hurrengoan kopa eta guzi aterako ditugu.

zimeldi

ALTZARIGILEA

▲ Edozein xokotarako muebleak diseinatu eta egiten ditut

▲ Zure diseinuaren arabera material ezberdinak aukera ditzakezu.

Djeitu eta neurriak hartuko dizkizut

© 387017 • ETXALAR

LESAKAKO ZUBIA

N-121-A

ZUMELDI

ETXALARKO BENTA



INAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

Erreformat • konponketak

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
© 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
© (943) 61 24 24
20300 IRUN

Zati honek **5.000 pzta.** balio ditu
5.000: 5.700 errebista = 0,87 pezeta errebista bakoitzeko

Sunbilla

Hamazazpi talderekin hasi da herriko futbol-sala txapelketa

Gomazko paleta txapelketaren finala Estanga eta Retegik irabazi zuten



Ulibeltzak elkarteak bi talde aurkeztu ditu futbito txapelketan: Bina partidu jokatu eta biak irabazi dituzte

IXABEL ETA JOSUNE

Urtarrilaren 14ean hasiera eman zitzaion I. futbol sala txapelketari. Hamazazpi taldek eman dute izena, 3 taldetan banaturik eta ligilla modura jokatuko dute. Talde

bakoitzeko hiru lehenbizikoekin 9 taldeko ligilla jokatuko da eta hemendik aterako da txapelketa. Partiduak asteburuetan jokatuko dira Sunbillako pilota lekuan, Aste Santura arte.

Gomazko paleta txapelketan Estanga eta Retegi irabazle

Urtarrilaren 16an jokatu ziren gomazko paleta txapelketaren finala eta 3. eta 4. posturako partidoak. Hirugarren postua,

Pierola eta Pernautek eskuratu zuten, Iribarren-Elizalderi 30-28 irabaziz.

Finalean berriz, Estanga eta Retegik

30-15 irabazi zuten Larralde eta Lakostaren kontra.

Giro ona izan zen eta hotza egiten bazuen ere, jendea gustora egon zen, batez ere 3. eta 4. posturako partido berdinduan.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Lizun

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA © 630735 • IRUN © (943) 622305



ZURE OSASUNA ETA EDERTASUNAREN ZERBITZURA

Osasun fisikoa eta sikikoa tratamendu naturalekin

•••

Bizkarrezurreko arazoak

•••

Zelulitisa eta loditasunaren kontrako tratamendua

•••

☎ 45 07 08 • DONAMARIAKO BENTA



Jean Paul Bouchet
Doktorea

fm
FOTO
MENA
ELIZONDO

Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

MARKOAK eta MOLDURAK

•••••

Eta orain, zure koloretako argazkiak

ORDU BATEZ ERREBELATUAK ditugu

•••••

Tfnoa.: 58 01 55 • Santiago 40 • ELIZONDO



Iñauteriak otsailaren 10, 11, 12 eta 13an ospatuko dira

Bertzalde, Juansenea etxean nekazariei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu Nafarroako ITGk

TXEMAA ALDABE

Orrtzegunean (10), iñautterietako giroan sartzen hasteko pazin zopaik emanen dituzte afaltzeko Kafeteria ostattuan.

Orrtziralean (11), goizetik baserrietan barma ibiliko dira gazteak eta bazkaria Santtamarian izanen da. Arratsaldeko 6etan Ramontxo 'tokatodo' elizaatarian eta Jubilatuen etxean haurrendako txokolatada. Afateria nahi duenak Ameztiara joan beharko da.

Larunbatean (otsailak 12), Askin tabernan izanen da gosaria. Arratsaldeko 4,30etan urtetik urtera jendle gehiago biltzen duern karroza desfilea burutuko da. Aspal-diam kuadrillak ikusiak ditugu alde batetik bertzera gauzak eramaten. Ea ba aurten sorpresa ematen diguten.



Karrozen desfilean parte hartzeko prest dago dagoeneko jendea

Artxiboa

Gauetz, koadrillen afaria izanen da eta arratsalde eta gauetz txaranga ibiliko da karrikaz karrika.

Igandean (otsailak 13), bazkaria Arozena jatetxean izanen da. Arratsaldeko 6etan Ramontxoren emanaldia elizatarian eta leku berean, zerri baten eta bildotsen zozketa.

Nekazariendako ikastaro berriak Juansenean

Batez ere nekazari zuzendutako ikastaro berriak antolatu ditu ITGk Oteiza auzoko Juansenea etxean.

Bertzeak bertze, sagardoa egiteko sagarra, ardi eta behi gaztaren fabrikazioa,

frutondoan kimatzea, agroturismoa, ardien ile moztea, nekazari-tza ekologikoa, nekazal mekanika eta soldadura, oihan aktibitateak, natur gidak, osasun belarren hazkuntza, mendirako planten

ttipi-flash

Bi buzoi

berri paratuko ditu Correos-ek INEM bulegoaren ondoan eta Herriko Etxearen antzinean.

Huelgak

erabateko eragina izan zuen herriko komertzio eta ostaltuetan, baita Norfres eta Aparanen ere. 27ko eguerdian LABek konzentrazioa burutu zuen INEM bulegoaren parean.

mindegiak, fruitu tiki-en hazkuntza edo zaldi gainean ibiltzeko ikastaroak dira urtarrietik ekaina bitarte ikas daitzekoenak.

Ikastaroak 15 ordu 120 ordu bitarte irauten dute. Informazio gehiagorako deitu 451635 edo 278011 tfnora.

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Ameztiara 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

MariCruz

LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



AMEZTIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tf: 450028 - DONEZTEBE

Malerreka

Eskoletako osasunari buruzko programa martxan dago

Bertzeak bertze, 'Osasuna eta eskola' izeneko aldizkaritxoaren lehen zenbakia plazaratua dute

A.A.

Malerrekako Osasun zentroa eta inguruko eskolen artean osasungintzari buruzko programa berezi bat egiten ari dira hilabeteotan.

Helburu nagusi bezala Malerrekako eskoletako neska-mutikoen osasun maila hobetzea izanen litzateke eta horretarako zenbait ekintza egingen dira urte honetan.

Honela, adin ezberdineko 362 haurrei errebisioak eta elkarriketak egingen zaizkie, beraien ohiturak ezagutzeko eta erita-




Malerrekako eskoletako haurrei zuzentzen zaie programa hau

sunaren bat baduten jakiteko. Bertzalde, haurren %90ari txertoak emateko asmoa dago programaren barnean. Gainera, denborarik gehien bertan igarotzen dutenez, eskola guztien ikusketa bat egingen da.


Helburu hauek lortzen laguntzeko eta zenbait xehetasunen berri emateko, 'Osasuna eta eskola' izeneko aldizkaritxoaren 1. zenbakia plazaratu berria dute. Bertze bi ale argitaratzeko asmoa dute eta ekainan programa guztiaren azterketa egingen da.

Artxiboa

Bikoitz itzazu interesak



(*) Zor publikoan eta letretan



(*) Plazo fijoan



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Urrotz

Ura kobratzen hasiko da lehen aldiz udala

Bertzalde, iñauteriak otsailaren 4etik 6ra ospatuko dira

TXEMA URROTZ

Orain arte dohainik zen ura laister kobratzen hasiko da udala.

Duela urte pare bat paratu zen kontadorea, baina gaur egun bitarte ez zen ura kobratzen hasteko pausurik eman. Hemendik antzina, metro kubiko bakoitzeko (1.000 litro) 10 pezeta kobratuko da.

Badirudi, neurri hau Nafarroako Go-

bernuak behartuta hartu dela, izan ere dirulaguntzak jasotzeko beharrezkoa omen da.

Iñauteriak

Iñauteriak ortziral honetan hasiko dira eta igandea bitarte iraungo dute.

Ohizko afari eta bazkarietaz gain, puxka biltzea etxe eginen da eta trikitilariak eta dantzaldia izanen dira larunbatean.



Zubietako

Iñauterietaz gain San Anton egunean ere besta izan genuen

Pasa berriak diren iñauteriei buruzko filminak ikusgai izan ziren

AINHOA MUTUBERRIA

San Anton eguna astelehen batean ospatu zen, gure herrian elurra egiteko ilusioarekin, baina honek ez zuen asko iraun. Pena ematen du herria elurraren azpian ez gelditzea lehen gertatzen zen bezala. Egunez, San Antoneko ermitan meza eman eta gero, jendea plazan elkartu zen gazta eta ardoarekin, betidanik izan dugun ohitura.



Iñauteriei buruzko filminak ere ikusgai izan ziren

Ilunabarrean berriz, kordioia izan genuen estalpean. Egia esanez zen jende asko egon soinua aditzen edo dantzan, Bazirudien denak iñauterietarako erreserbatzen ari zirela. Eta jai horietara jiraturaz, filmina batzuk jarri ziren asteburu horretan Zubietako eta Iturengo joaldunei buruz.

Osagai guztiak genituen juerga galanta egiteko pasa diren jai egun hauetan.

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

B
BIDASOA
GARBIKETAK
630557

Servicios de Limpieza BIDASOA, S.L.

Baztan-Bidasoako udalei:

Herrietako garbiketen gestioa eta administrazioaz arduratzen gara.

Goizueta

Iñauterien programa gero eta aberatsagoa

Ohizko puska biltzea eta zagi dantzaz gain, dantzaldia antolatu dute 'mozorroek' eta Gazte Asanbladak

ESTEBAN AROZENA

Azken urte hauetan krisis hitza askotan aipatzen bada ere, gure herriak behin eta berriz garbi erakusten du festari dagokionez behintzat hemen ez dela gehiegi nabaritzen egoera ekonomikoaren eraginik.

Esan dugun horren eredu bezala, aurtengo iñauteriak erabili ditzakegu, ohizko egunen egitaraua aberasteaz gain, ondorengo larunbaterako ere dantzaldia antolatu baitute 'mozorroen' taldeak eta Gazte Asanbladak.

Otsailaren 13, 14 eta 15ean ospatuko dira iñauteriak, eta le-



Astelehenean mozorroak herriratutakoan poteoari hasiera emango zaio

hen egunaren ekintzarik interesgarriena, gure artean hain ezaguna den Donostiako 'Trebeska' dantzari

taldearen emanaldia izango da. Arratsalde eta gaueko dantza saioa Albisturreko Pagadi anaiak trikiti-

larien esku egongo da igande horretan.

Astelehenean eta asteartean urteroko ohiturei ekingo zaie,

hau da, baserritako puska biltzeari eta herrian barna egin ohi diren eskea eta zagi dantzari, azkeneko hau astearte arratsalderako 4,30etatik aurrera. Bi egun hauen dantzaldien ardura Ereñozuko 'Aritza' taldeak izango du. Astelehenean mozorroak herriratutakoan poteoari hasiera emango zaio bertako trikitilariekin.

Azken urte hauetako ohitura jarraituz herriko udala eta Umore Ona elkartearen laguntza jasoko dute 'mozorroek', erakunde bakoitzak egun bateko musika ordainduko duelarik.

Areso

Sokatira taldeak Euskadiko txapelketan parte hartuko du

Hiru kategoritan saiatuko dira: 680, 640 eta 600 kilotan

JUANA M^a SAIZAR

Gogor hasi dira sokatira taldeko hamabi mutilak. Aste guzua entrenamendutan ematen dute. Bi egun lasterka, beste bi gimnasioan eta beste hirurak sokarekin.

Otsailaren 19an Euskadiko Txapelketan parte hartuko dute hiruk kategoritan: 600, 640 eta 680 kilotan. Joan den igandean, urtarrilak 30, gonbidatu gisa egon ziren



Asteko zazpi egunetan entrenatuz hasi dute urtea

Astigarragan Gipuzkoako Txapelketa-

ren saio batean. Lapuzkoak ere badute,

Andoingo 'Maderas Gertu'. Kultur Egu-

tipi-flash

Elizako erlojua
konpontzeko eskean ia-ia 300.000 pta. bildu dira.

Museoko
bi ehiza-postuak lekuz aldatzea onartu da azken udalbatzarrean.

Caritas
Elena Rodriguez eta Asun Pellejero dira ordezkariak.

nean bildutako diruarekin soka erosi zuten.

'Leitzatik Kubara' izenarekin zenbait ekitaldi aste honetan

Kultur taldeak antolatutako egitarauan, La Habanako balletak igande arratsaldean emango duen emanaldia aipagarri

JOISEBA AZPIROZ

'Leitzatik Kubara' izenarekin zenbait ekitaldi antolatu ditu aste honetarako Kultur taldeak.

Karrape irratian aste guzian zehar Kubari buruzko programa izanen da 12,30etatik letara eta aurreko guztiak errepikatuz, programa berezia larunbatean.

Kuba diaposibetan ikusteko aukera izango da ostiralean 7etan Aurreran. Ondoren, "Kuba, mitoa?" gaiaz bi brigadistek hitzeginen dute.

Larunbaterako "Mojito gaua" prestatu dute 11etan hasita Aurreran. Leitzatik Kubara joan direnen arteko afaria ere ospatuko da.

Igandean (otsailak 6), arratsaldeko 6etan 'Gran Ballet de la Habana' taldearen emanaldia izango da frontoian. Honetaz gain, argazki eta ma-



Erasoteko eskolako Bautista Iparragirre eta Paskuala Lukanbiok 50 urte egin dituzte ezkondu zirenetik, 1944eko hilbeltzaren 5ean, Arantzan

Zakarrontzi urdinak birzikla daitezkeen produktuentzat

Hemendik aurrera, hiru leku desberdinetara bota behar ditugu zakarrak. Berreskuratu ezin ditugun hondakinak (janariak, pixoihalak), kontenedore berde-

tara botako ditugu. Berreskura daitezkeen produktuak berriz, edukiontzi urdinetara botako ditugu (paper eta kartoi garbia pakete moduan loturik eta

latontziak, brik ontziak, plastikozko pote eta botilak, boltsa berean sarturik). Beira edo kristala, orain arte bezala, edukiontzi berezietara botako dugu.

terialen erakusketa izango da Aurreran eta

egun horietan garbiketarako gaiak eta

eskolako materiala bilduko da.

ttipi-flash

Liburutegian
lehengo urtean 107 bazkide berri egin dira, denetara 448 direlarik. 8.158 irakurle izan dira urtean zehar, gehien azaroan eta gutxien abuztuan, eta ia 10.000 kontsulta egin dira eta 2.500 liburu atara dira etxean irakurtzeko.

Plazaolako
trenaren lehen bigaia egin zenetik 80 urte bete dira hilbeltzaren 19an.

27ko greba
deialdiak erantzun haundia izan zuen. Komertzio eta taberna guztiak itxi ziren. Ikastetxe eta udal zerbitzuek greba egin zuten eta industriak beste horrenbeste. Karrape irratia grebari buruzko informazioa eman zuen.

Lorea eta Idioia
ileapaindegia
Tfnoa: 610907 - LEITZA

ttipi-ttapa
5.700 harpidedun
20.000 irakurle

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA

GRAN BALLE DE LA HABANA
Taldearen emanaldia
Otsailaren 6an (igandea)
Arratsaldeko 6etan frontoian
MUSIKA eta DANTZAK
(Kubarrak eta afro-kubarrak)
Antolatzailea: Leitzako Kultur Taldea
Kubako giro beroaz blai...

Baztan

San Anton eguneko behia Fermin Pachari tokatu zaio

Eguraldiak sobera lagundu ez zuenez,
normalean baino jende gutiago ibili zen

J. IGARABIDE

Normalean baino jende gutiago bildu zen aurten Elizondon, San Anton eguna ospatzera. Aspaldiko ohitura segituz, behia zozketatu zuen Baztango Erresidentziak eta Elizondoko Fermin Pachari tokatu zaio. Zenbaki saritua 3.128a. Bigarren saria (zerria) 4.562 zenbakiari egokitu zaio eta oraindik ez omen da agertu. Bi bildotsak eta urdaiaspikoak badute dagoeneko jaberik, Javier Alaña eta Juan Pedro Plaza.

Urak etxea bota

Erratzun erreka garbitze lanetan ari dira. Uholdeak kalte handiak egin zituen herriak eta horren errua duela bi urte egin zen presak izan omen du. Garai batean errota kanalera ura eramateko erabiltzen zen presa haunditu zuten. Ondorioz, uraren norabidea aldatu da, zubiari eta bi etxei kalte eginez. Hauetako bat bota egin du urak. Etxeko nagusiak kontuak eskatu ditu baina inor ez da jabetzen etxearen erorketaz.



Erratzuko etxe hau urak bota du. Duela bi urte haunditutako presa botatzeko erabakia hartu du udalak

Arg.: Joseba

Elizondoko baratzenak koipuen beldur

Azken aldi honetan, koipu izeneko animaliak kalte handiak egin ditu Elizondoko Txokoto auzoko baratzetan.

Ongi aski ezagutzen dute koipua bertako baratzen lanetan aritzen direnek. Urte bete baino gehiago daramate baratzeneko paztana, porruak, letxugak eta denetik jaten. Juan Luis Oskoz, Miguel Hualde eta Argineneko baratzen sortu ditu kalterik haundienak. Miguelek

erran digunez, ezin omen zuten deusekin zaintzen ahal animalia honen sarrera. Harri handiak mugitzeko indarra du eta zuloak ere errex egiten ditu.

Koipua berez hegoamerikako animalia da eta bere larrua probexteko ekarri zen Europara. Granjetatik eskapoejin eta Europan guztian barna za-



Miguel Hualderen baratzen ez dute barazki aunitz utzi koipuek

Arg.: Joseba

baldua da. Barazkietatik bizi da. Orain dela 3 hilabete, udalera keja bat eraman

zuten honi buruz, baina oraindik ez dute handik arropostu zuzenik hartu.

ttipi-flash

✦ **Elizondoko**
babes ofizialeko 48 etxebizitzak aitzinera doaz. Udalak Oronoz-Mugairen bertze 8-10 egiteko asmoa du, Almanadozen 4 eta Erratzun oraindikikusi gabe dago.

✦ **Iñauteri usaina**
hartzen ari dira Baztango herriak. Lehenik Iruritako errekan eta Basaburuan izan ziren. Orakunde herri gehienetan 10ean izanen bada ere, Erratzun 9an eta Azpilketan 11n ospatuko dute. Garai bateko Orakunde egunarekin konparatuz, oraingoak joku gehiago eta dantza gutiago omen du.

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Iñaute giroa Basaburuan

Elbasketa izan da Anizko Mendialde elkartean

PAEBLO MENDIBURU

Aste honetan Ziga eta Almandozko iñauteak. Almandozen ortziralean gazte-afaria, larunbatean baserrietan eskea eta gauz afaria eta dantzaldia. Igandean herrian ibiliko dira. Orainarte afariak San Blasen egun badira ere, aurten herriko bajera batean eginen dituzte. Almandozen neskak ere ibiltzen dira etxez etxe, eta ez dute ohitura uzteko pentsamendurik.

Zigan ortziralean Orrakunde eguna izanena da. Goizean meza, gero Zuraurren ibilaldia, ondotik herrian eta bazkaria. Arratsaldean haurrentzat jokoak eta oilar harrapatzea. Berandu ondotik dantzaldia Modestorekin. Gazteen afaria Etxezurur. Larunbat goi-



Egitarau zabala izanen da aurtengo iñauterietan

Artxiboa

zean gosaria ostatuan, gero herrian barna ibilaldia. Arratsaldean Auzkueko baserrieta joan eta ondotik dantzaldia frontoian. Gero afaria eta dantzaldia. Igandean go-

saria eta Egozkue eta Zuraurren barna buelta, gero bazkaria eta Modestoren soinua.

Anima zaitzte denak moztortzera eta dantzatzera, urtean behin baitira iñauteak.

Aniz, Berroeta eta Almandozen Orakunde 12an ospatuko da. Hauek ere meza, herrian zehar ibilaldia, bazkaria, jokoak eta oilar harrapatzea izanen dute.

ttipi-flash

❖ **Amaiurko**
bestak antolatzen hasiak dira. Bestakomisionea jende berri du eta dagoeneko kontratatu dituzte bestetako orkestak: Harkaitz, Aritza eta Anker.

❖ **Narbartekoek**
Zozaiatik ura hartzeko pista bat erabiltzen zuten. Orozko alkateak pista hori lehenagoko kondizionetan uztea eskatu du. Udalaren Narbarteko Kontzejuarekin harremanetan jarriko da.

❖ **Ebasketa**
Anizko Mendialde elkartean ebasketa izan zen urtarillaren 23an. Bideoa eta dirua eraman zuten.

❖ **Udalak**
1.257.704 pezetako dirulaguntza jaso du Nafarroako Gobernutik, komunikabideetan euskararen erabilera bultzatzeko.



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA

SALMENTA • TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 ELIZONDO

Tfnoak: 580924-580814-580373



ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure kkarretek ORDU BATEZ REBELATZEN DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

Jar zaitetz esku onetan!

Gure zentroa Metodologia Estetikoan akreditaturik dago. Dermoesteticista batek gidatua eta Mediku Espezialista batek kontrolatua, zure arazoak moldatzeko tratamendu pertsonalizatu bati esker.

Gainera Hidromasai Bañera, Sauna, Solariuma, Makilaia eta ilea kentzeko sistemak (elektrikoa, argizari beroa eta argizari epela zainendako espeziala) zuretzako.



Beatriz

Lurrindenda eta Apaindegia
☎ 58 02 83 • Santiago 53 • ELIZONDO

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORNOTZ-MUGAIRI

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

Kortsikari laguntza eskeintzeko kantaldia burutu zen kiroldegian

Joan den azaroko uholdeek ugarte horretan sortutako kalteak estaltzen laguntzeko antolatua zuen kantaldia Saiberri taldeak

MIXEL ETA JACQUELINE

Urtarrilaren 15ean kiroldegi estalian, kantaldi bat iragan da Kortsikari laguntza eskaintzeko. Mediterraneoan aurkitzen den ugarte hau biziki joa izan da joan den azaroko uholdeen ondorioz. Saiberri, Sarako kantari taldekoek antolatu dute kantaldi hau. Kanpoan aro txarra izanik ere, kantaldia eta ondotik iragan zen erromeria giro bero eta alai batean joan dira. Holako ekintza batek duela hamabi urte Sara eta Santa Maria Poghjuren artean sortu lokarriak ez ditu indartu baizik. Eskerrik beroenak gau hortako partaide guzieri.



Datorren larunbatean gazteak auzoz auzo ibiliko dira eskean

Ihauteriak

Aurtengo ihauteriak otsailaren 12 eta 13an iraganen dira. Ohidura den bezala azken urte hauetan,

larunbatean gazteak auzoz auzo ibiliko dira eskean. Igandean aldiz, ekitaldi nagusia plazan egingen da.

Liburutegiaren idekitzea

Herriko Etxeak elkarte baten bidez sortarazi du "Denen etxean" zabaldua iza-

nen den liburutegia. Zuzendaria Chantal Leremboure sendagile dugu eta hilbeltzaren 29an zabaldu ditu lehen aldikotz bere ateak. Ondotik larunbat eta asteazkenetan goizeko 10,30etatik eguerdia arte zabalik egonen da. Harpidetza urteko 40 libera da eta 16 urtetik behitikoentzat dohainik edo urririk.

94-95 ikasturtea

Ikastola, 94-95 urteko ikasturtearen antolatzen ari da. Beren haurra ikastolan eskolatu nahi dutenek, izena oraitik eman dezakete. Deitu ikastolarat (59542748) edo Michel Gerendiain (59542519).

 **ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

**SUKALDE ETA
BAINU MOBLEAK**

Egoki-ren banatzaile
baimendua



HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

*Michel eta Kaitin
Gerendiain*

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



LARRAMENDI • Supergarbiteta Idorrean

Saskaitz plaza 1 (Butano ondoan) • ☎ 45 23 81 • ELIZONDO



Edredoiak, alfonbrak, arropak eta larruak, idorrean garbitzen dugu

Urdazubi

Heldu dira lhauteriak

Otsailaren 13tik 15era ospatuko dira

ALIZIA OLAIZOLA

Otsailaren 13tik 15era ospatuko dira lhauteriak. Dantxarinezako bentetan barna ibiliko dira gazteak igandean. Astelehenean hiru auzoko etxetan ibiliko dira eskean, besta ederra eginez eta arratseko 9etan haur mozorrodunen desfilea izanen da. Gauerdialderat, behar bada mozorro gehiago izanen da. Assteartean ibilaldia azken auzoetan barna izanen da. Hiru egun hauetan, afariak eta daantzaldiak Indianobaaitan.



1993ansortuak: Ana Mitxelena Irigoien, Xabier Erdozain Ariztia, Estitxu Suhas Sansiñena, Arantxa Etxeberria Bengoetxea eta Ion Bengoetxea Irigoien.

Beotxean, San Anton eguna ospatzen



ttipi-flash

Arkupekoek

Koxka jatetxean egin zuten bazkari eder bat urtarrilaren 25ean eta ondotik dantzaldia. Erratzu, Arizkun, Azpilkue-ta, Amaiur, Zugarramurdi eta Urdazubitik 120 lagun bildu ziren.

Lehen jaiotza

Ivan Inda Dainziart, urtarrilaren 24ean jaio zen. Aurtengo lehen jaiotza izan da Urdazubini.

Zugarramurdi

2.500 buru dituen 'Ipar-alde' zerritegia jabez aldatu da

Frantziako Tarbes aldeko kooperatiba batek erosi du, eta bertako lau langiletatik bi lanik gabe gelditu dira

KORO IRAZOKI

Zugarramurdiko zerritegirik haundiena daa (2.500 zerri izanen ditu) eta orain arte soziedade modura funtzionatu du. Bainan azken hauetan ez zuela scobera martxa onik seegitzen eta, urte lehenetik jabez aldatu da. Tarbes aldeko kooperatiba batek erosi zuen boere errota, etxebizitzza, bulego eta guzietan. Makurrena, lau langiletatik 2 lanik gabe gelditu direla, haien partez bertze bi frantziar hasi direlako.

Hiltegia itxia

Hogei urte bete dira edeki zela herri hundertako mataderoa (lehenkoa Herriko Etxean zegoen). Duela 5 urte berri zena sanidadeko arauak betetzeko. Orain Nafarroako Gobernuak hiltegi txikiak ixteko agindu du, hoi partez zonalde bakoitzean hiltegi haundi bat paratzeko. Zugarramurdikoa urriaren 12an itxi zen eta orain Elizondoko hiltegia erabili beharko da.



Zerritegiak ez zuen martxa onik azken hauetan

EZKONTZAK

JAIOTZAK

HERIOTZAK

Maitane Barberena Gortari, Elizondokoa, urtarrilaren 7an.

Jon Berho Goñi, Oronoz-Mugarikoa, urtarrilaren 14ean.

Edurne Zabaleta Sasturain, Leitzakoa, urtarrilaren 13an.

Mikel Gurutchet Barroso, Lesakakakoa, urtarrilaren 19an.

Estibaliz Mañeru Jimenez, Lesakakoa, urtarrilaren 10ean.

Zuriñe Etxepare Trigueros, Lesakakoa, urtarrilaren 20an.

Ane Ameztoi Sanzberro, Etxalarkoa, abenduaren 20an.

Oihane eta Gaëlle Blanco, Sarakoa, urtarrilaren 12an.

Olaia Gandara Urtxegi, Sunbillakoa, urtarrilaren 21ean.

Ivan Inda Dainziart, Urdazubikoa, urtarrilaren 24ean.

Lidia Indakoetxea Lukanbio, Arantzakoa, urtarrilaren 4ean.

Juan Miguel Arteta Adansa, Anizkoa, urtarrilaren 18an, 79 urte.

Carmen Lekaroz Etxeberria, Lesakakoa, urtarrilaren 22an, 80 urte.

Jesus Irigoien Zubieta, Etxalarkoa, urtarrilaren 15ean, 75 urte.

Xan Etcheverry, Sarakoa, urtarrilaren 14ean, 73 urte.

Maria Altugarai, Sunbillakoa, urtarrilaren 14ean, 67 urte.

Joxepa Larretxea Bereau, Arantzakoa, urtarrilaren 18an, 85 urte.

Santiago Jorajuria Almandoz, Arantzakoa, urtarrilaren 21ean, 70 urte.

Angeles Vazquez Iribarren, Berakoa, urtarrilaren 15ean, 90 urte.

M^a Luisa Aldazabal Gorria, Berakoa, urtarrilaren 20an, 69 urte.



ZUBIRIA MINDEGIAK

- *Etxeak apaintzeko landareak*
- *Baso landareak*
- *Bertako frutondoak*

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 948-581274

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S. L.

URTARRILAREN 7tik AINTZINERA
24 ORDUTAN.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404

BEHARREZKO TELEFONOAK



SSOS Nafarroa eta
 UJrgentziak088/061
 OSasun Zentruak
 EEIzondo.....452367 / 580235
 DDoneztebe 450300
 LLesaka.....637428 / 637336
 LLeitza510248 / 510573
NNafarroako Ospitaleak
 NNafarroako ospitalea ..102100
 SSSko urgentzi
 zzerbitzua246750
 VVirgen del Camino
 eerresidentzia109400
 GGurutze Gorria226404
GGipuzkoako Ospitaleak
 Irlrungo ospitalea 614600
 GGipuzkoako ospitala ...460299
 EEresidentzia 453800
AAmbulatorioak
 Irlrun 630264/621106
AAmbulantziak
 COitz450242/450342
DDYA
 LLesaka
 ((Iarrialdiak).....(943) 464622
 DDoneztebe
 ((Iarrialdiak).....171717
FFUNERARIA
 DDoneztebe 637404
 EEIzondo 580924
 LLesaka..... 637404
SSuhiltzaileak
 COronotz-Mugaire 592044
 CGarraioak
 EBidasotarra 631150
 EBaztanesa 580129
 LLeitzarar 515018
AAberiak:
 Iiberduero 450335/450336



Urtarrilaren 27ko huelga orokorrak erantzun nabarmena izan zuen zonaldean. Komertzio eta ostatu gehienak itxirik egon ziren, zerbitzuei dagokionez ere gehientsuenak itxirik egon ziren eta gauza bera lantegi haundienak. LABek deiturik, eguerdikohamabietan berrogeita hamarrenbat lagun bildu ziren Doneztebeko INEMen antzinean.

'Etxetik Plazara' argitaratuko du mendialdeko IKak

'Etxetik Plazara' izeneko aldizkaritxo, norberak etxetik mugitu gabe euskara hobetzeko tresna izan nahi duena, argitaratuko dute IKaren mendialdeko euskaltegiek. Aldizkari hau *ttipi-ttaparen* barnean banatuko da, eta momentuz ez da Baztanen banatuko, bertan ez baitago IKaren euskaltegirik. Aldizkaritxoan proposatzen

diren ariketen bitartez, euskaltegi eta gau-eskoletako ikasketak osatzea da helburua, batez ere euskararen ulermena eta idazmenari dagokionez.

IKako arduradunek diotenez, iniziatiba honekin ez da inola ere euskaltegian egiten den lana ordezkatu nahi. Alderantziz, batez ere jende helduari zuzendua dago eta baita egunero klasera

joateko arazoak dituztenei ere. Horretarako, norbera bere kontura ahalegintzeko da al d i z k a r i a n proposatzen zaizkion ariketak egiten, eta eginak dituenan, eskaltegira bidaliko beharko ditu erantzunak. Bertan bidalitakoa zuzendu ondotik, zuzenketen berri emanen diete ikasleei. Mo-

mentuz ekaina bitarte iraunen du esperientziak eta dinamika estimulatzekeo sariak izanen dira.

ETXETIK PLAZARA

Hortziarik, Madarriek eta Leizorako Euskaltegiak, IZentzabak, IKArekin Argitaratzen



Ihaute Ihaute zingar ta arraultze ...

Olatz
Relojería
Joyería

GARAI ZAILETARA EGOKITUTAKO PREZIOAK

Bisita gaitzazu eta ikusiko duzu.

INAUTERI ALAITSUAK PASA!

Larunbatetan goiz-arratsaldez irekia
 SAN PEDRO, 3 - Hondarribia

☎ 64 56 78



CRISTALERIA VELATE

- Kristaleria orokorrean •
- Barnekaldeen dekorazioa •
- Bainurako mobleak eta manparak •
 - Pareta ispiluak •
 - Bidriera artistikoak •

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe

Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021
 Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991
 Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825

San Antonerako lehen mendi ibilaldian berrogeitalau bikotek parte hartu zuten

Mendi bizikletan Tobi Ruiz eta Joseba Martikorena beratarrak garaile, oinez Andoni Sarasola eta Jon Arozena lesakarrak

Urtarrilaren 23an burutu zen San Antonerako I. erregulatutako mendi ibilaldia, oinez eta mendi bizikletaz. Lesakako peña batzordeak antolatutako ekitaldian 44 bikotek parte hartu zuten, 33 oinez eta 11 mendi bizikletan.

Horrelako probetan, ez da bizkorrena izaten txapelduna, guztien denboraren banaz bertekora gehien hurbiltzen dena baizik. Honen arabera, mendi bizikleta proban Tobi Ruiz eta Joseba Martikorena beratarrak izan ziren irabazle eta oinezkoen artean berriz, Andoni Sarasola eta Jon Arozena lesakarrak izan ziren mediara gehien hurbildu zirenak. Irabazleek afari bana irabazi zuten. Aurten go arrakasta ikusirik, izanen al du segidarik denen parte hartzea errexten duen proba honek.



Mendi bizikleta ibilaldian hameka bikotek eman zuten izena

Argazkia: AITOR

Joxe Mari Irazoki beratarra Euskadiko 60 metroko txapeldun 'Promesas' mailan

Joxe Mari Irazoki korrikalari beratarra Euskadiko txapeldun suertatu zen 'Promesas' mailako 60 metroko laisterkaldian 6 segundu eta 88 ehuneneko marka bikaina lortu ondotik.

Karrera Donostiako Anoeta estadioan korritu zen


urtarrilaren 23an.

Joan den larunbatean, berriz ere Donostian aritu zen, bertan Club-en arteko Errege kopa jokatzen baitzen.

Hemendik antzinerat, hurrengo hila betetan Zaragoza eta Sevillan izanen ditu hurrengo zitak, Es-

painiako txapelketa korritzeko. Zaragozako proba, 'promesas' mailan izanen da eta Sevillakoa aldiz, maila absolutuan.

6 segundu eta 88 ehuneneko behar izan zituen Joxe Mari Irazokik



Botz pronto

❖ Julian Retegik

ezin izan zuen txapel berri bat jantzi. Binakako finalean 22-14 galdu zuen Belokirekin batera Arretxe eta Titin III.aren aurka. Kontrarioak bikain aritzeaz gain, Julian ez zen txapelketa guztian zehar bezain ongi ibili.

❖ Beñi Gazte

Lesakako futbol talde nagusiak iazko azaroaz geroztik ez du partidu bakar bat ere galdu hau idazterakoan (bortz irabaziak eta bi berdinduak). Bigarrenak doazi eta igotzeko itxaropena oraindik tinko.

❖ Sarako gazte

bikotea, Christophe Mariluz eta Albert Etcheverry, pilotan esku huska Euskal Herriko txapeldun atera ziren junior mailan. Finala, urtarrilaren 23an jokatuta zuten eta Hendaiako bikoteari 45-35 irabazi zieten.

❖ Sunbillako

futbol sala txapelketan 17 talde parte hartzen ari dira. Partidoak asteburuero jokatuko dituzte pilotalekuan Aste Santua arte eta eskualde guziko taldeak izena emana dute.

Alfaro eta Zalba irabazle Iruritako pala motzeko lehen txapelketan


Aranabia elkarteak antolatutako txapelketan sei bikotek parte hartu zuten

IRRURITA

Iruritako Aranabia kirol eta kultur elkarteak antolatutako lehen pala motzeko txapelketa, Alfaro eta Zalbak (Irurita eta Iruñeakoa) irabazi zuten. Finalean, Garibai eta Telletxea I lesakarrei irabazi zieten partidu ikusgarri batean.

Guztira sei bikotek parte hartu zuten txapelketan, bi taldetan banatuak. Finalera ailegatu ziren pilotariez gain, Zelaieta eta Inbuluzketa (Igantzi eta Elizondokoa), Zozaia eta Telletxea II (Lesakakoak), Ormaetxea eta Ezkerro (oiartzuarrrak) eta Lizardi eta Toledo (Igantzi eta Odiartzungoa) palistak parte hartu zuten.

Txapelketako par-



Alfaro eta Zalba txapeldunak, Garibai eta Telletxea I txapeldunorde gelditu ziren lesakarrekin batera

tidu guztiak Iruritako Aranabia frontoian jokatu ziren eta jende dextente agertu zen hauek ikustera, batez

ere finalera. Txapelketa Elizondoko Pedro Garmendia Renault kontzesionarioak patrozinatua zen eta

Baztan Balleko udalaren eta Nafarroako Gobernuo Kirol eta Gazteria institutuaren laguntza zuen.

Sunbillako pala txapelketa

Urtarrilaren 16an jokatu ziren paleta gomako finalak eta final aurrenak. Hiru eta laugarren posturako Iribarren eta Elizalde, Pierola eta Pernauteren kontra jokatu zuten. Azken hauek 28-30 irabazi zieten eta finalean Estanga eta Retegi, Larralde eta Lakostaren kontra jokatu zuten. Hauten lehengo bikotea izan zen irabazle 30-15. Eguraldi hotza bazen ere, jendea gustora egon zen pilotalekuan eta arras giro ona izan zen ikuslegoaren artean, batez ere hirugarren eta laugarren posturako partiduan.

Joan den urteko txapeldunek etzuten aurtengo txapelketa bukatzerik izan; bat lesionaturik zegoen eta bertzeak istripua izan zuen.

Sokatira txapelketarako egutegia zehaztu du Herri Kirol Federazioak

Parte hartu nahi duenak martxoaren 25a baino lehen eman beharko du izena

Nafarroako Herri Kirol federazioak aurtengo sokatira txapelketarako egutegia egin berria du.

Lehen ekitaldi bezala, maiatzaren 7 eta 8an zuzen-zuzenean 6680 kiloko finala jokatu da.

Maiatzaren 14, 15, 21 eta 22an, mutilen 6640 kiloko txapelketa eta emakumeen 520 kilokoaren kanporaketak izanen dira eta

maila hauetako finalak berriz maiatzaren 28 eta 29an.

Gizonezkoen 600 kiloko eta emakumeen 480 kiloko txapelketen kanporaketak ekaineko bi lehen asteburuetan izanen dira (4-5 eta 11-12) eta finalak berriz, ekainaren 18 eta 19an.

Azkenik, 560 kiloko gizonezkoen finala ekainaren 26an burutuko da.

Edozein txapelketan izen emateko azken eguna martxoaren 25a izanen da.

Nafarroako Herri Kirol Federaziotik ohar modura errandutenenez, "iaz aritu zen talderen batek aurten ez badu aritu behar, mesedez eskatzen dizuegu ahalik eta azkarren abisatzea, egin beharreko aldaketa posibleak garaiz egin ahal izateko".

Hamabostaldiko jokaldiak



San Antonerako I. mendi ibilaldia.

Ibilaldia nornahik egiteko modukoa izateaz gain, antolatzailerik txukun txukun utzi zituzten bazterrak proba bukatzerakoan, bidea erakusteko paratutako plastiko guztiak bilduz.



ttipi-ttapako kirolak.

Antzineko alean, us-tez urtarrilaren 16an egin beharreko San Antonerako ibilaldi horretaz idatzi genuen. Azkenean aste bat gibeltu zen. Aldizkaria ortziralerako bukatu beharrak horrelako arazoak sortzen ditu.

IÑAUTERIAK

BERA

Otsailaren 12tik
4ra. Larunbatean aldereroak, igandean lude eta artzaietako onpartsa eta astelehenean 'zingar arraultze' eguna.

ARGAZKI ERAKUSKETA

ELIZONDO

Otsailaren 14tik
6ra
se SANMARTINOren Mehategietako «uspegiak» Kultur xean.

Z I N E KARTELDEGIA

DONEZTEBE

Otsailak 5-6.
«Jamón jamón»
Otsailak 12-13.
«Corazón trueno»

LEITZA

Otsailak 6.
«El Mariachi» eta «Portugas Ninga III»
Otsailak 13.
«En la línea del fuego»

GUARDIAKO BOTIKAK

Urtarrilaren 31tik
Otsailaren 6ra
«Saka, Goizueta, (J. Erralde) Elizondon, «Lurrita eta Sunbilla»
Otsailaren 7tik
13ra Bera, ituren, (F. «Zaun») Elizondon eta «Litza»
Otsailaren 14tik
18ra Arantza, Narraite, Arribe eta «Erralde) Elizondon..

ERREZETA



Etxeko pastak

Osagaiak

- Kilo bat irin • Kilo erdi bat gurin bigundua • 250 gr. glass azukrea • 4 arraultze oso •

Prestatzeko manera


Aipatutako osagai guztiak ontzi batean bota eta eskuekin nahasi masa bat egin arte

(sobera ere ez da nahasi behar, pixka bat). Hozkailu edo frigorifikoan 4 edo 5 ordu utzi gogortzen.

Masa horretatik zatitxo

bat hartu eta guk nahi dugun pasta forma emanen diogu (borobila, laukia, izartxoak...) eta horrela masa guziarekin.

Nahi izanez gero giltzaurra, almendra, urra xehetua edo



Santi
URTASUN
Arkupe
Goxotegia
• Irurita •

txokolatea jartzen ahal diegu gaitetik. Behin eginak ditugula labean sartu eta 150 graduko tenperaturan eduki egin arte (10 bat minutu nahikoak izaten dira).

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoak): 4.200 pzta.
- **Zerri gizena** (95-100): 140 pzta./kilo
- **Zerramak**: 85 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
Idixkoak: Pzta./kg. Kanal
Extra 660
1.koa 620-630
2.koa 590

Urruxak: Pzta./Kg. Kanal
Extra 670
1.koa 640-650
2.koa 600
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

• Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 25.000 eta idixkoak 35-40.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 42.000 eta idixkoak 47-52.000 pzta.

• Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 430 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 470-500 Pzta /Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

- Hiru urteko landare bakoitza
- **Bertako sagarrondoak** 930.
 - **Udareondoak** 930 pta.
 - **Bertako aranondoak** 1.050 pta.
 - **Gereziondoak** 1.050 pta.
 - **Kiwiondoak** 600 pta. (2 urtek.)
 - **Feijoondoak** 1.000 pta. (2 urt.)



❖ BARAZKIAK ❖

- **Tipula** zientoa 250 pta.
- **Udaberriko aza** 500 pta.
- **Letxuga** zientoa 400 pta.
- **Porrua** zientoa 300 pta.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

Behin behineko kontratuetan zenbait aldaketa izan dira

Urte berriarekin batera zenbait aldaketa ezarri dira behin behineko kontratuak egiterako orduan.

Ikasle edo aprendiz kontratua

Ikasle kontratua, 16 eta 24 urte arteko gazteei egiten ahal zaie, beti ere ikasle behar dutenaren titulurik ez badute. Ezinduek ez dute ardin mugarik izanen.

Kontratuaren guttieneko iraupena 6 hilabetekoa izanen da eta gehienekoa 3 urtekoa; 3 urteko gehieneko horretara ailegatzeko ezin da bi prorroga baino gehiago egin. Enpresa bakoitzean gehieneko goiko koadroan agertzen den ikasle kopurua kontratatu daiteke.

Aprendizaren prestakuntza denbora, guttienez lanaldiaren % 15ekoa izanen da, asteko 6 ordu inguru. Ikasleak tutore bat izanen du eta prestakuntza lantokian edo ikastetxe batean egin daiteke.

Soldata konbenio bidez

ezarriko da, baina ezin izanen da Profesioarteko Guttieneko Soldataren

(18 urtetik goitikoak 60.570 pezeta) %70a, 80a edo 90a baino tikiagoa izan lehen, bigarren eta hirugarren urtean. Enpresak, kontratu honetatik hilabeteko 3.500 pezeta ordaindu behar dizkio Seguritate Sozialari. Ikasle kontratua bukatuta, langileak ez du desentplegua kobratzeko eskubiderik.

Kontratua praktketan

Lizentziatu, diplomatu edo lanbiderako bertze tituluak dituztenei egiten ahal zaie kontratua praktketan. Titulua atera eta lau urte baino lehenago sinatu behar da kontratu mota hau.

Guttienez 6 hilabete eta gehieneko 2 urteko iraupena izanen du. Soldata ezin izanen da PGSaren % 60a eta

Enpresako langileak (ikasleak ezik)	Ikasle kopurua
5 langile bitarte	1 ikasle
6 eta 10 langile artean	2 ikasle
11 eta 25 langile artean	3 ikasle
26 eta 40 langile artean	4 ikasle
41 eta 50 langile artean	5 ikasle
51 eta 100 langile artean	8 ikasle

Ikasle lanaldiaren % 15a -asteen 6 ordu- prestakuntza lanetan pasatu behar ditu ikasle kontratua baldin badu

75a baino tikiagoa izan lehen eta bigarren urtean.

Errelebo kontratua

Jubilazio pentsioa kobratzeko eskubidea duten langileek, beraien lanaldia eta soldata % 50ean jeisteko aukera izanen dute, enpresak gainerako denborarako bertze langile bat kontratatzen badu. Errelebo kontratu hau, ordezkaturako langilea jubilatzen denean bukatuko da. Betiko jubilazioaren antzineko 3 urteetan bakarrik egin daiteke erdi aurrejubilazio hau.

Lanpostuak sortzeko behin behineko kontratuak

Mota hauetako kontratuak 1994ean bukatuz gero, 18 hilabeterako luzatu daitezke, behin bakarrik.

PATXI LASA
(GRADUATU SOZIALA)
Erredakzioan itzulia

AGENDA EGUNEZ EGUN

INAUTERIAK

ARANTZA

1 Otsailaren 3tik 6ra. Larunbatean gaueko 10,30etan bertsolariak frontoian Ondotik gaupasa Irat taldearekin.

ZIGA-ALMANDOZ

1 Otsailaren 4tik 6ra. Puxke biltzeak eta bazkari-afariak

IRURITA

1 Otsailaren 11 eta 12an. Puxke biltzeak eta bazkari-afariak

SARA

1 Otsailaren 12 eta 13an. Larunbatean eskean ibiliko dira auzoz auzo. Igandean Plazan..

GOIZUETA

1 Otsailaren 13tik 15era. 13an, Trebeska dantzari taldea eta Pagadi Anaiak trikitalariak. Astelehen eta asteartean Aritza taldea.

LESAKA

1 Otsailaren 13tik 15era. Igande eta astelehenean Gaubel taldea. Igande arratsaldean Zaku-zaharrek herrian barna.

ARIZKUN

1 Otsailaren 13tik 15era. Puxke biltzeak eta bazkari-afariak

ELIZONDO

1 Otsailaren 13tik 15era. Puxke biltzeak eta bazkari-afariak

MAGNETISTA - NATUROPATA ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU

BISTAREN ERREKUPERAZIOA

- Begi alferrak, estrabismoa, kataratak, retinosis, begietako neuritis, begietako infekzioak, konjuntibitis, miopia...

REHABILITAZIOA

- Artrosis, Artritis reumatoidea, bihurdurak, lumbalgia, zerbikalgia, psoriasis, diabetea, azaleko alergia, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordua eskatu)
San Marcial 7 - 4. - IRUN © (943) 62 30 55

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ☎

ETXEBIZITZAK

LESACA. 82 m²ko bajera alkilatzen da Lamina-ciones-erako bidean. Prezio onean. ☎ 637872.

MALERREKA - BAZ-TAN. Baserri bat erosi nahi dugu bertan bizi ahal izateko. ☎ 450325 (Iñaki eta Ines).

BERA. Legarbidea karrikan, pisu berria salgai. ☎ 63 12 67.

BERA. Pisu bat alokatzeko, moblerik gabe, Eztegara pasealekuan. ☎ 630991 (eguerdian).

BORTZIRIETAN. Baserri zaharra erosiko nuke moldatu eta bertan bizitzeko ☎ 630053.

IBILGAILUAK

Skoda markako kotxea salgai, SS-T. Oso merke. ☎ 453219.

Bultaco Montesa 350 c.c.koa salgai. ☎ 453120 (Ignacio).

Citroen C-25 furgoneta NA-V (5 urtekoa) salgai. Egoera onean. ☎ 630721 (arratsetan).

LANA

Aizu neska mutil edo etxeokandrea, ez du axola adina. Kosmetika, apainketa eta perfumerian ari den frantziar multinazional batek jendea behar du (salmenta zuzena). Diru iturri ona, muestrario ederra. Aukera ederra zuretzat!. ☎ 510506.

Traktore lanak egiten dira 3.000 litroko zisternarekin baita desbrozadorearekin ere. Ahal baldin bada Baztanen. ☎ 453180 eta 453279 (arratsetan).

Langabezia dagoen 24 urteko gazte batek, jendearekin harremanetan jarri nahi luke negozioren bat antzinera ateratzeko. Kuriosoak ez deitu. ☎ 451521 (9etatik aurrera).

DENETARIK

BERA. Urtearen azken egunetan kartera bat galdu nuen, gris kolorekoa eta barnean dokumentu aunitz zituen. Norbaitek harrapatu baldin badu eraman dezala Berako Herriko Etxerat edo bertzenaz Errotazar karrikako 1 zenbakira.

Kart Racing Formula 1 jokua (Scalextric gisakoa) salgai. ☎ 610867 (12etatik 2etara).

Mendiko bizikleta erabili gabea, prezio onean salgai. ☎ 637165 edo 637453 (arratsetan).

Bideo aparailua VHS-koa salgai. ☎ 637165 edo 637453 (gauetan).

Nintendo bideo-jokoa salgai, 8.000 pezetan. ☎ 450998.

Peluleria ekipatua alkilatzen dut Lesaka erdi erdian. ☎ 637034.

Fischer eskiak bi metroko luzerakoak eta *Salomon* eskizetako botak (44-45) salgai. ☎ 631391 (arratsaldetan).

Informatika klaseak Lesakan (Ms-Dos 6.2, Windows, WP 5.1, Word,

etab.). ☎ 637993 (Aurelio).

Ziklomotor bat, Peugeot 103 Sport, gorria, bi urtekoa, gutti erabilia. Prezioa: 5.000 libera. ☎ (07 33) 59542071 edo 59542555 (Saran).

BERA. Kanttonberri eta Altzate bitartean Ray Ban eguzkitako betaurrekoak galdu ditut. Harrapatu badituzu deitu. ☎ 630812 (goizetan).

Victoria markako akordeoia salgai. 120 baju dituen. ☎ 637792 (arratsetan).

Canon EOS-1000 markako argazki-kamara salgai, bi objetibo (35-70 eta 80-210 mm) eta flasharekin. Poltsa eta zenbait filtro ere ekipoa sartuak daude. ☎ 637236 (Oskar - Igantzi).

Nintendo bideo konsola, futboleko bideo jokuekin salgai 10.000 pezetatan. Gutxi erabilia. ☎ 637011 (Imanol).

Mutikoentzako jantziak eta komuniaroko arropak salgai. ☎ 630552.

Esne tankea Alfa-Laval markakoa eta 330 litroko kapazitatea duena salgai. ☎ 635188 (eguerdian edo

arratsean).

Elizondon, urtarrilaren 15ean (larunbata) urrezko eskumuturra galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, deitu 580880 ☎ra. (M^a Luz Ugalde).

Musika bateria osatua salgai 60.000 pezetatan. ☎ 637372.

Larruzko kazadora bat aurkitu da Matxiarena ostatuan. ☎ 631376.

Kartera bat, dokumentazio eta guzti Lesakan galdu dut. ☎ 637891.

Hiru akumuladore salgai. Prezio erdian utziko ditut. ☎ 592157.

AGURRAK

Ea ba, Sutagar zale, espabila! azkenekoa nik idatzi nuen eta zure desafioaren zai nago. Etzara oroitzen? Sutagar zuretzat.

Doneztebeko Mirian Arnedori: zorionak zure 15. urtebetetzean. Kontuz, zahartzen ari zara. Zure lagunak.

Berako Ainhua Almandozeri. 19. urtebetetzea pasa denez, zorionak Etxalarko lagunengatik partez.



TELLETXEA

MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu. Fabrikanteak gara.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala.
- Ordaintzeko errextasunak eta zure erosketengatik opari ona eramanen duzu.

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

EUSKARA IKASTAROAK


Euskaltegia berriro zabalik duzu matrikula otsailaren 1etik otsailaren 10era, eta hauek dira dauden urratsak eta ordutegiak

1. URRATSA 9,30etatik - 11etara 18 - 20etara 14,30 - 16,30etara	2. URRATSA 18 - 20etara	3. URRATSA 9etatik - 11etara	4. URRATSA 9etatik - 11etara 20 - 22etara
6. URRATSA 19,30 - 21,30etara	7. URRATSA 17,30 - 19,30etara	EGA Larunbatetan 17 - 19etara 19 - 21etara	ALFABETATZE 17 - 19etara 19,30 - 21,30etara 20 - 22etara

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA • ☎ 63 77 96




*Bidasoa 45, Behea
Bidasoa 60, Behea*



*Bidasoa 45, Sotoa
MERKA AMETS*

MOBLEAK
ETS
 Tfnoak: 630537 • 631443 - BERA



ESKAINTZAK
LOGELA OSOAK
 Gazteentzako
37.840
 Senar-emazteentzako
66.500



Itzea, 4 Behea • BERA • ☎ 63 10 91

Auto irratien promozioa

- *Blaupunkt Verona auto irratia*
- *Muntaia gure kontura*

24.700



* Gainerako Blaupunkt irratien prezioaz galdetu. Otsailerako baliagarria den eskeintza



ETXANIZ

Lesakako Iturria anaiak

Zure bainua osatzeko behar duzun guziaz

Juan Arana, 3

Tfnoa eta faxa: (943) 61 17 67

IRUN

OTSAILAKO ESKAINTZA BEREZIA

- ▼ Kortinak, alfonbrak eta osagarrietan %15eko deskuentoa
- ▼ Ispiluetan %15etik %40rako deskuentoa
- ▼ Zenbait mobletan %40a bitarteko deskuentoa

Manparak jartzea gure kontura